

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

CRISS Proiektua: irakasle talde bat Italian izan berri da proiektu honen pilotua Nafarroan ezartzeko

Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxek aurrez-aurreko modalitatean proiektu honen garatze pilotua eginen dute. CRISS proiektuak ikasleriaren gaitasun digitala landu, ebaluatu eta ziurtagiria lotzea du helburu

Ostirala, 2018.eko abuztuak 10

Gaitasun digitala ezinbestekoa da egungo ikaskuntzan, ikasleek DBH bukatutakoan, unibertsitatean edo lanean hasi aurretik, bereganatuta eduki beharko luketen jakintza da. Europako [Batzordeak](#) [garatutako Hezkuntza Digitalaren Ekintza Planaren](#) arabera “*gaitasun digitalaren baitan ikasketarako, lanerako edo gizartean parte hartzeko teknologia digitalen erabilera ziurra, kritikoa eta arduratsua dago.*”



Parte hartu duen irakasle taldeak.

Eraldaketa digitala Hezkuntza Departamentuaren arduetako bat da eta bere ezarpena maila guzietan egiten ari da (zentroen konexioan, zeharkako metodologiak, formazioa...). Baliabide hau ikasketarako tresna ez ezik, irakaskuntza erraztekoa ere bada. Hezkuntzarako-Teknologiak oinarritzko inbertsioa dira hezkuntza publikoaren kalitatea bermatzeko. Eta horren adibide da CRISS izeneko proiektua.

Ikasleriaren [gaitasun digitalaren araudi-markoaren](#) baitakoa da CRISS programa eta DBHko ikasleen ezagutza eta trebetasun digitalak zehazteko behararengatik sortu zen. Proiektu honek bestalde, ebaluazio-adierazleak eskaintzen dizkie irakasleei bere ikasleen gaitasuna neurtzen laguntzeko.

Zertan datza zehazki CRISS proiektua?



Taldearen beste irudi bat.

Europar batzordeak [HORIZON 2020](#) programaren bitartez diruz laguntzen duen proiektua da eta 9 lurralde ari dira jorratzen (Italia, Erresuma batua, Espainia, Kroazia, Grezia, Alemania, Errumania, Suedia eta Frantzia). CRISS proiektuaren helburua ikastetxeek gaitasun digitala landu eta ebaluatzeko *online* plataforma komuna sortzea izan zen. Era horretan, ikasgai guzietan jorratu daitekeen gaitasuna da digitalitatea. Egunero eta edozein ezagutza esparrutan lantzeko. Eta bide batez, irakasleek euren taldearen garapena erraz aztertzea ahalbideratzen du.

2017an eman zituen proiektu honek lehen urratsak eta 2019ko abendura arte egonen da martxan. Zehazki, 2018-2019 ikasturtean Europa osoko 25.000 ikasle, 2.000 irakasle eta 400 zentro ari dira ekimen honetan murgiltzen.

Hasierako 18 hilabeteotan 3 helburu nagusi izanen ditu programak:

- Erreferentziatzeko marko bat sortzea ikasleriaren gaitasun digitalean. Universitat Oberta de Catalunya (UOC) ari da lan hori gauzatzen
- Gaitasun digitalaren ikasketan eszenatoki eta ebaluatze sistema bateratuak diseinatzea. Lan hau 2018-19 ikasturtean DBHko 4.mailan proiektu-pilotuan parte hartuko duten administrazioek egin dute. UOC eta Londoneko unibertsitatean gainbegiratzearekin.
- Erabilera komunerako plataforma bat sortzea lanerako tresnak partekatzeko. Datuen azterketa erraza egin ahal izanen da eta ikasle bakoitzaren bilduma-digitala ere bai. Bertan egindako lanak eta gaitasun maila jasota izanen dituelarik.

Proiektuaren abiatzea Nafarroan: 10 ikastetxe aitzindari

Irailean hasiko da CRISS proiektuaren pilotatzea gurean. Bi modutan jorratu ahal izanen da: aurrez aurrekoan ala urrutitik. Bien arteko aldea formazioan eta zentroek jasotzen duten laguntzan dago.

Urrutiko modalitatea: Ikastaro zabala da eta uneoro irekita dagoena. Modu hau aukeratzen duten irakasleek Erabiltzailearen Arretarako Zentroa dute eskura laguntza jasotzeko. Modalitate honen hizkuntza, hori bai, ingelesa da. Edonola ere, edozein ikastetxek, edozein unetan eman dezake izena urrutiko-pilotatze hau egiteko honako web atarian: <https://www.crissh2020.eu/es/unete/>

Aurrez-aurreko modalitatea: Hezkuntza sailek aukeraturiko zentroetara zuzenduta dago. Nafarroan DBHko sare publikoan, zabaldu zen deialdian 10 ikastetxe izan dira aukeratuak:

- IES Mendillorri BHI
- IES Navarra Villoslada
- Iturrama BHI
- IESO Castejón
- IES Tierra Estella BHI
- IES Julio Caro Baroja
- IES Zizur BHI
- IES Toki Ona BHI
- IES Alhama
- IES Valle del Ebro

Formazioa jasota Italiatik bueltan dira zentro hauetako irakasleak

Uztailean abiatu ziren CRISS programa ezartzen hasteko beharrezkoa den formazioa jasotzera. 5 eguneko egonaldia egin dute Italian aukeraturako 10 zentroetako 9 irakasle. Haiekin joan zen Hezkuntzako

Departamentutik programa hau koordinatzen ari den Elena Osés Urteaga ere “*formazio sakona jaso dugu CRISS proiektua ezartzeko. (...) Ikastaroan Errumania, Italia, Grezia, Suedia, Espainia eta Kroaziako irakasleak ere izan ziren. Denon helburua zen pilotatzea eginen den zentroetan irakasle batek bederen proiektua ezagutzea eta horrela bere lankideei azaldu ahal izatea*”

Hezkuntza Departamentuak horregatik babes osoa eskaini zien Italiako formaziora joan nahi izan zuten irakasleei. Aukera ona zelakoan Europako hainbat ikastetxe eta lankide ezagutu eta gaitasun-digitalaren inguruan sakontzeko. Italiatik bueltan Osés koordinatzailea kontent da “*formazioa CRISS proiektua ezagutzeko balio izan digu eta aukera paregabea izan da irakasleen artean elkarezagutu, eztabaidatu eta taldelana sustatzeko. Irakasleen parte hartzea eta motibazioa oso altua izan da, pozik itzuli gara eskuartean ikasgeletako metodologiaren eraldaketaren proiektua izan daitekeelako. Ezartze-esparruak anitzak dira oso. Proiektu honen bitartez zeharkako helburu ugari lortu daitezke.*”

Bi irakasle CRISS proiektuaren Nafarroako “laguntzaileak” izanen dira

Urrutiko modalitatean ingelesez baino ezin daiteke CRISS proiektuaren hastapena. Aurrez-aurrekoan ordea gaztelaniaz zein euskaraz, ikastetxearen ereduaren arabera.

Aurtengo irailean hasi eta 2019ko ekainera arte izanen da ezartze-froga. Horretarako, lan zama arruntaz libratu dira bi irakasle. CRISS-en parte hartuko duten 10 zentroetako laguntzaileak izanen dira:

Joxemi Zabaleta Trecu de Iturrama BHI

Mikel Etxalar Elizaintzin de Toki Ona BHI

Biak ala biak izan dira Italiako formazioan eta proiektuaren ezartze fase honen ordezkari modukoak izanenn dira. Zentroetan sor litezken dudak argitu eta urtean zehar beharrezko egokitzapenak egiten joatea izanen da euren zeregina.

Joxemi Zabaleta irakasleak izena eman zuen formazioan, izan ere “*gaitasun digitalak bere biziko garrantzia bereganatu du; izan ere, egun dena Internet-en dago eta informazio hori zuzen kudeatzea ezinbestekoa da*”

Zabaleta Italian izan zen, proiektuaren begirale izanen da nolabait eta irakasleentzako “*sorturiko plataforma birtual eta egiteko batzuen bidez, gaitasun digitala garatu eta ebaluatzeko modu “sinple” bat ahalbidetzen duela*” uste du.

Talde polita osatu dute Italian. Mikel Etxalar ere tartean zelarik. Irakasle honen arabera “*prozesu osoa burutu ondotik baloratuko dugu, indar-guneak bermatzeko eta hobekuntza ildoak proposatzeko.*”

CRISS esperientzia aitzindaria izanen da gure hezkuntzan. Edozein irakaslek edo ikastetxek du proiektura batzeko aukera edota informazioa eskatzekoa . Horretarako du proyectoste@educacion.navarra.es helbidea.